



### 3 INAUTERIAK

#### Udala inauteriei bultzada emateko asmotan dabil

Lasarte-Oriako inauteriak indarra hartzen ari direla ikusita, Udalak beste bultzada bat eman nahi die, batetik, mozorrotzeko aukeratu den gaiari buruzko proposamenak bilduz eta bestetik, koardilei konpartsak osatzeko gonbidapena luzatuz. Bihar inauterien antolaketan parte hartu nahi duten guztiekin bilera bat egingo du inauterien gaia erabaki eta egitaraua mamitzen hasteko.

### 5 MULTIMUSIKALA

#### Herriko tabernetan sekulako giroa jarri du Multimusikalak

Hamar urte igaro dira 2002ko abenduaren 23an Txorimalo gazte kolektiboak lehen aldiz Multimusikala antolatu zuenetik. Azken urteotan karpa handiaren aldeko apustua egin ostean, hastapen haietako formatua berreskuratu dute aurten, kontzertuak tabernetan eskainiz. Hamaika kontzertu, hamaika anekdota eta hamaika bizipen utzi ditu aurtengoak, Multimusikalak bizi-bizirik dirau.



Zero Sette akordeoi Orkestrak 25. urteurrena ospatzeko egindako kontzertuen artean, azkena eskaini zuen Piazzola Project hirukotearekin batera.

## Alboka eta Zero Setteren doinuak

Piazzola Project eta Bruman Norteñas ikusteko aukera ere izan da

Zero Sette Akordeoi Orkestrak eta Alboka abesbatzak kontzertuak eskaini dituzte asteburuan. Zero Settek 25. urteurren ospakizunekin amaitzeko kontzertua eskaini zuen larunbatean herritarren aurrean, Piazzola Project hirukotearen laguntzaz. Albokak berriz, Gabonetako kontzertua eskaini zuen igandean Brijidatarren komentuan, kantabriako Comillas herritik etorritako Brumas Norteñas koruarekin batera.

**H**erriko Zero Sette Akordeoi Orkestrak 2012an egin ditu 25 urte, eta urteurren ospakizunekin amaitzeko, larunbatean kontzertu goxoa eskaini zuen kultur-etxean. Albokak berriz, datorren urtean beteko du 25. urteurrena, baina aurretik, Gabonetako kontzertua eskaini zuen Brijidatarren komentuan, baserriarrez jantzita gabonetako kantuak abestuz.

#### Piazzola Project Trio

Ana B. Garcia pianistak, Susana Cencillo akordeoi-joleak eta Juan Ignacio Emme txelak osatutako hirukoteak kontzertu zoragarria eskaini zuen kultur-etxean Astor Piazzola konpositorearen erreperitorioko zenbait obra interpretatuz.

Gainera, Udal Musika Eskolako ikasle Andrea Gonzalezek Kepa Junkeraren "Huriondo" obran lagundu zuen, maisuki.



Brumas Norteñas abesbatza kantabriarra euskaraz abestera ausartu zen.

#### Brumas Norteñas

Igande eguerdian berriz, kantabriako Comillas herritik gurera etorritako "Brumas Norteñas" abesbatzak kantabria aldeko mendi zein itsas kantu tradizionalak eta gabonetakoak uztartu zituen. Bitxi-

keria gisa, euskarazko "Haurtxoa sehaskan" lo-kanta abestera ere ausartu ziren kantabriarrak eta jendeak zutik txalotu zituen. Amaieran, Albokak eta Brumas Norteñasek oroigarriak trukatu zituzten, eguna gogoratzeko.

INFORMAZIO GEHIAGO

Nagusi Kalea 47 • Lasarte-Oria  
natalia@saltogela.net  
617294582 telefonoan

www.saltogela.net



Zatoz Saltogela ezagutzera!

Abenduan 17tik 20ra arte  
dohain frogatzeko aukera

(alde aurretik izena eman behar da)

## Adituak dio



Mari Domingi

Kaixo aurkeztuko naiz, ni Mari Domingi naizue. Eta istorio bat kontatuko dizuet:

Aspaldian ni eta beste lagun batzuk ikatzopari banaketa eskolan egon ginen ikasten. Garai hartan ikatza zen oparirik preziatuena neguan behintzat. Ikasketa haietatik lana lortu nuen. Hortxe ibiltzen nintzen oihartzun handirik gabe nire lana ahalik eta hoberen burutzen. Baina lanak batzuetan gaunditu egiten ninduen, lan gehiegi EH-ko txoko gehiegi bisitan joateko gau batean. Anbotoko anderearekin hitz egin eta laguntzaile bat jarriko zidatela adostu genuen. Eta horrela Olentzeroren praktikak bideratu nituen, eta biok elkarrekin lanean hasi ginen.

Hilero bilerak egiten genituen nagusiekin, bilerak amaitzean trago batzuk hartzera joaten ginen, beno joaten ziren, kasualitatea ziurrenik baina gizonezkoak ziren guztiak: Basajauna, Nikolas, Martintxo, Jupiter, Olentzero... Bitartean ni, Basandere, Sorgina, Anbotoko anderea, Baubo, Lamia eta beste emakumeak

esparru "pribatura" gure eginkizunak betetzera: zainketak, sukaldaritza, garbiketak... Olentzerok ere bazuen nor zaindu, ama gaixo zuen eta, baina sorgina bidaltzen zuen eginkizun horretara. Eta beste gizonezkoek ere bazuten zer egin, baina beste norbaitek egiten zien lana. Olentzero eta nagusiak harremana estutzen joan ziren bilera oste horien eta bestelako parranden ondorioz. Zein ondo pasatzen zuten, hura bai dibertimendua, zenbat par...kar kar kar.

Abestiak sortu ziren Olentzeroren inguruan. Olentzero tipo ezaguna egin zen. Plaza gizon ezinbestekoa... Eta ni? Nik neure lanean jarraitzen nuen. laneko agenda prestatzen, egin behar nituen bilerak egiten Olentzeroren hitzaldiak antolatzen, bera bihurtu zen gure lanaren mezulari (gaur egungo marketina), banaketa lanak ere gehitu egin zitzaizkidan Olentzeroren ospeari esker eta Olentzeroren konpromisoen erruz, eta nola ez, zainketa, garbiketa, sukaldaritza, ... Nazkatu egin nintzen. Olentzerok ez ninduen behin ere aipatu bere hitzaldietan eta parrandetan bere laguntzailea nintzela esan ohi zuen, prakak eta atorra garbitzen nizkiola. Horixe bakarrik falta zitzaigun, ni Olentzeroren neska!! Bere emaztea nintzela ere entzun behar izan nuen. Ezta pentsatu ere!

Eta emakume publikoa bihurtzen joan naiz, ezaguna, beti hor egon naizelako. Eta beste emakumeek bisibilizatu nautelako. Eta nire antzera zenbat emakume izan dira historian, mitologian, egunkarietan, ikerketetan, ... ahaztuak, ezabatutak hobe esanda.

Orain murrizketak daude gurean ere, ezetz asmatu noren lanpostua dagoen arriskuan? Bitartean etxe batzuetara ni joaten naiz eta beste etxetara Olentzero... Zurera nor joango ote da?

## Zer iritzi duzu Olentzerori buruz?



Ramon Urdanpilleta

Olentzero aspaldian ez dut ikusten, ez dakit berataz gauza gehiegirik baina, hori bai, barruan daramat, eta nire familia osoak ere bai. Opariak jasotzen ditugu urtero eta egun pozgarria izaten da. Horrela izan da aspalditik. Esan bezala, behin edo behin bai, baina egun horretan ez naiz herriko kaleetan ibiltzen, Olentzeroren kalejira ikustera ez naiz askotan etortzen, emaztearen baserrira joaten naiz eta.



Juan Joxe Elgezabal

Arraigoa dauka atzetik Olentzerok, oso errotuta dago gure artean. Zalantzarik gabe umeentzako pertsonaje polit bat dela iruditzen zait. Gure txikitako garaian ez genuen Olentzerorik, hiru erregeak bakarrik ezagutu genituen, baina orain jada etxean bietan izaten ditugu opariak, Olentzeroren egunean lehenengo eta errege egunean ondoren. Ondo dago, ilobak poz pozik egoten dira egun hauetan.



Aritz Oteiza

Gabonetako pertsonaje inportantea da, hemengoa eta umeen ilusia pizten duena. Lehen kantazera ateratzen nintzen, soinua jotzen nuen. Eguberri bezperan oso giro polita egoten da kalean, baserri baserri ere abesten da. Ilobei esaten diet Olentzerok eskutizak enbor magiko batean jasotzen dituela, txintxoak izan eta idatzi egin behar dutela. Opariak jasotzen ditugu gure etxean.



Axun Martinez

Oso ondo iruditzen zait Olentzero. Bertako pertsonajea da, ikazkina, historikoa, eta galdu ezin den ohitura bat. Gauza gehiegi galtzen ari gara, ezta? Gure etxean beti egin da detaileren bat olentzero egunean. Gustatzen zait eguberri egunaren bezperan kalean izaten den giroa eta olentzero herriko kaleetan ikustea. Dendan izaten dut ikatza eta haurrekin jolasean ere aritzen gara.

## Iruditan

## Badator Olentzero

Abenduaren 24ko arratsaldean urteroko hitzordua beteko du Olentzerok herriko haurrekin. Garai batean, herriar askoren babesarekin baina bakarrik etortzen zen Olentzero gurera. Berehala lagun bat aurkzatu zigan Xixuko bere laguntzaile trebea eta orain gutxi Mari Domingi ere etortzen da Olentzerorekin batera. Hirukote hau ikusteko egun bakarra da datorkigun abenduaren 24a, gau magikoa haur zein helduentzat. Desfile polita ikusteko aukera izango da 17:00etatik aurrera herrian barrena eta nola ez hirukoteari Porrotx paila-zoa gehituko zaie, Olentzero, Mari Domingi eta Xixukoren aspaldiko lagun ona. Eskutizak prestatu!



1993an Olentzero bakarrik etorri zen bisitan.

## Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak

Lasarte-Oriako Udala  
Euskara BatzordeaEUSKO JAURLARITZA  
KULTURA SAILAGFAko Kultura eta  
Euskara Departamendua

## PARTE HARTZEA

# Bilera inauteriak antolatzen

Datorren asteartean elkartuko dira Udala, antolaketan parte hartzeko eta mozorrotzeko asmoa duten koadrilak eta herritarrak

**Lasarte-Oriako inauteriak indarra hartzen ari direla ikusita, Udalak beste bul-tzada bat eman nahi die eta horretarako, batetik, proposamenak biltzen aritu da mozorrotzeko aukeratu den gaiari buruz, bestetik konpartsak osatzeko gonbidapena luzatu die koadrilei eta asteartean inauterien antolaketan parte hartu nahi duten guzkiekin bilera bat egingo du inauterien gaia erabaki eta egitaraua mamitzen hasteko.**

Inauteri herrikoiak antolatzeko jarraitu nahi du Udalak eta azken urteotan hartutako bide eta berezitasunari eutsiko die, hau da, herri osoa gauza berberaz mozorrotzeko proposamena egingo du.

Antolaketaren prozesu irekia martxan da jada: horrela, aukera emango die herritar guztiei inauterien antolaketan parte hartzeko eta, bereziki, gonbidapena luzatu die konpartsa bat osatzeko prest dauden lagun koadrila berriei.

Inauterietan buruzko ekarpenak egin nahi dituzten herritarrei eta konpartsa gisara ateratzeko asmoa duten herriko koadrilei deia luzatu die asteartean, abenduaren 18an, arratsaldeko 18:30ean Kultur



Inauterietan konpartsak osatzeko prest dauden koadrilei luzatu die deia Udalak.

Manuel Lekuona Kultur Etxeko hitzaldi aretoan elkartzeko.

## Bilera

Bilera honetan, autengo inauterien gaia erabakitzeaz gain, festaren inguruko beste zenbait kontu argituko dira: diru-laguntzen inguruko informazioa emango da eta urtarrilean zehar egingo diren beste bileren egunak zehaztuko dira.

Urtarrileko bilera hauetan finkatuko da inauterietako egitaraua.

Udaleko festa sailak 2013ko inauterietako gaiaren inguruko hainbat proposamen jaso ditu herritarrek parte-hartzeko jarri diren buzoi berrietan.

Beraz, parte hartu nahi duenak gerturatu dadila asteartean Manuel Lekuonara.

## UDAL MUSIKA ESKOLA

## Gabonetako doinuak kalerik kale

Gabonak ate joka direla eta, abenduak 18an asteartean Udala Musika Eskolako irakasleek Lasarte Oriako kaleetatik barrena kalejira egingo dugu.

Gabon doinuak eskainiko dituzte kalejira alai honetan, hala nola, "Haur eder baten bila", "Hator hator", "Alaken" edo "Din dan don" entzungo dira herriko kaleetan.

Kalejira Manuel Lekuona Kultur-etxetik aterako da. Baina lehenik bertan arkupeetan saio txikia egingo dute. Ondoren Geltoki kaletik barrena joan eta Okendo plazara hurbilduko dira bertan bigarren emanaldia eskaintzeko. Jarraian Kale Nagusitik Brigitarren komentura egingo dute eta Brijitarren kaperan berriro ere saio txiki bat egingo dute.

Bukatzean, Manuel Lekuona Kultur-etxera bueltatuko da kalejira. Bidean Okendo plazara, Pablo Mutiozabal eta Iñigo De Loiola kaleak alaituko dituzte.

Eguraldi txarra eginez gero, kalejira bertan behera geratuko dela jakin arazi du Musika eskolako zuzendaritzak.

## IPUIN KONTAKETA

## Ipuinen barrena bidaiatzen

Manuel Lekuona kultur-etxeko haur liburuetatik haur eta gazte literatura suspertzeko antolatzen duen Ipuin kontalarien tartearan aurtengo azken saioa izango da bihar, 18:00etatik aurrera.

Honetan Kontu Kantoiko lagunak hitz eta marrazkiekin 6 eta 8 urte arteko gaztetxoak ipuin eta kondaira desberdinak ezagutzeko aukera izango dute.

## HARRESI GUZTIEN GAINETIK

## Flas-Moba-ren entsegua bihar

Presoan lagunak taldeak herritarrak bildu nahi dituen flash-moba antolatu du, abenduaren 23an, Okendo plazan, 13:00etatik aurrera.

Koreografiako pausoak ikasteko saio desberdinak egin dituzte eta bihar entsegua orokorra egingo dute trinketean, 18:00etatik aurrera izango dira.

Koreografia ikasi nahi duten herritarrek "Harresi guztien gainetik" facebook kontuan aurkitu dezakete taldeak prestatutako bideoa.

## BIDEOFORUMA

## Alzheimerra eta zaintzaileak

Udaleko Gizarte Zerbitzuek eta AFAGI elkarteak antolatuta bihar 18:00etatik aurrera "Cuidadores" dokumentala ikusiko da. Oskar Tejedoren lan honek Alzheimerra duten pertsonen zaintzaileen egunerokoa aurkezten du.

Ostean solasaldia izango da Manuel Lekuona Kultur-etxeko hitzaldi aretoan. Honetan AFAGI eta dokumentalean parte hartu duten pretsanak izango dira.

## SALTOGELA

## Herriko irakasleak Saltogelaren inaugurazio hitzaldian

Alberto Beñaran, pedagogo, psikomotrizista eta Bergarako UNED-eko Psikomotrizitate Eskolako irakaslearen lehengo asteartean Saltogela psikomotrizitate gabineteko inaugurazioan.

Herriko ikastetxeetako orientatzaileak eta irakasleak hurbildu ziren "Gure eskolako taldeekin psikomotrizitate gelara joaten gara astero, baina zergatik? Psikomotrizitate saioak hobeto ulertzeko zenbait orientabide" hitzaldia entzuzera.

Izan ere, Saltogelako Natalia Nogalesek aipatu legez, "psikomotrizitateak gero eta pisu handiagoa du ikastetxeen hezkuntza proiektuetan, haurren garapenean lagungarria den tresna baita".



## Langabetuentzat Eguberrietako parkearen sarrera eta taberna .-

Pablo Barrio alkateak sinatu zuen ostegunean langabetuen plataformako bi ordezkarekin akordioa eta honen bitartez Eguberrietako Haur Parkean sartzeko ordaindu beharreko euroa beraienez izango da baita tabernaren kudeaketarekin ateratako dirua ere. Honen bitartez udalak langabetuei elkartasuna adierazi nahi izan die "gure esku dauden gauzetan laguntzeko prest gaude". Emilio Robledo langabetuen plataformako ordezkariak eskerrak eman dizkio udalari laguntza hau eman eta akordioagatik baina oso motz geratzen dela azpimarratu zuen.



## Adinduak: Zuk zer ikusten duzu? Ez gaixo, ez gixajo, ze karajo!

**Gaur, Atsobarreko Egoileen eta Senitartekoen Batzordeek, azaroaren 12an Txintxarrin argitaratutako albisteari erantzuna emanez, gure errealitatearen berri eman nahi dugu, pertsona nagusiak garenez.**

### ATSOBARRERKO EGOILEEN ETA SENITARTEKOEN BATZORDEAK

Artikulu horretan deskribatzen dena, begiratzeko gaituzten pertsona batzuen begirada erakusten du, soilik gure mugak eta ezgaitasunak ikusteko gai direnenak, ez ordea gaur egun gure etxea den egoitzan aurrera eramantzeko gaitasun eta ekintzak.

Begi horiek honelaxe ikusten gaituzte: "gaixorik", "burua galduta", "lur jota, onenak emanda, gainbehera", "elkarri begira, eta elkar ikusten ez dutela, noizean behin antsi-hasperen bat botatzen dutela, besterik ez", "bejetalak" bezala gaudela baieztatuz.

Hori al da, irakurle, zuk ikusten duzuna?

Gu ez gara irudi honetan ezagutzen, eta hauxe da gure benetako errealitatea:

Pertsona adinduak gara, batzuk ez hain adinduak, bai pertsona paregabeak. Gure herrian, Lasarte-Orian, Atsobarreko deituriko egoitzan, elkarrekin bizitzen garen pertsonak gara. Arrazoi ezberdinengatik ez dugu nahi izan edo eta ezin

izan dugu gure etxean bizitzen jarraitu. Behar dugun laguntza onartzen dugu, ez gaixoak garelako, baizik eta gutariko batzuek gaixotasunak jasaten ditugulako, beste edozeinek bezalaxe.

Jasotzen dugun tratua ona eta errespetagarria da, guztiok elkar "mimatzen" dugu, gure senitartekoekin batera, beraz, etxe honetan giro maitakorrik ez zaigu falta!

Batueta triste gaude, eta nor ez? eta heriotza hurbil ikusten dugun galdetzen badiguzu ..., noski baietz!, adina dela eta txartela gehiago ditugu, baina bizitzaren atal bat dela ulertzen dugu, eta horrexegatik probetxu ateratzen saiatzen gara. Egun bakoitza opari bat da. ¡que nos quiten lo bailao!

Denbora honi, opari honi, probetxua ateratzen saiatzen garenez, gure denbora antolatuta eta elkarrekin era guztietako ekintzak aurrera eramaten ditugu: gaurkotasunean kokatzen gara egunkarietako albisteak komentatzen, gorputza eta burua lantzen ditugu, badakizu ... "Mens sana in corpore sano"! Nahi dugu-



nok gure kabuz egunero errosarioa errezatzeko aukera dugu, edota larunbatetan egoitzan bertan meztara joan gaitzake.

Era desberdinetako eskulanak egiten ditugu, gozogintza tailerra, olibekin errezeta bereziak probatu (eta ondoren denon artean, noski!), josi, marraztu, irakurri, ipuinaren orduan iriziti eta hausnarketak egin

.... Orain musikoterapiari sartu berriak gara, eta nola ez, betiko mahai jokoetan ere aritzen gara. Guzti honetan, gure senideak, bolondresak eta baita langileak ere parte hartzen dute.

Gainera urteak betetzea eta elkarrekin ospatzea atsegin dugu. Egoitzan festak antolatzen ditugu, eta herriko ospakizun berezietan parte hartzen dugu ere:

inauterietan, San Pedro jaietan... Astero, eguraldi ona egiten badu, Nagusilaneke bolondresen eta Atsobarreko monitoreen laguntza atseginarekin herriko azokara jeisten gara.

Ikus daitekeen bezala, aukera sorta galanta dauka, eta bakoitzak parte hartzen du gustuko dituen edota ahal duen ekintzetan.

Hau da gure Atsobarre! Sartu eta irtetzen gara, eta ongietorriak dira errespetatzen gaituzten guztiak.

Bisitatzera datozen pertsonak, Nagusilaneke bolondresak barne, bere lanean apartak dira, gure erabakiak ontzat hartzen dituzte, eta baita egoitzaren arduradun eta senitartekoenak; egoileek erabakiak hartu ezin dituztenean beraiek direlako erabakiak hartzen dituztenak. Pertsona hauek isilean egiten duten lan fina goraiatu nahi dugu, ezagutzarekin egiten dutelako, eta gure intimitate eskubidea errespetatzen dutelako.

Horrexegatik gaur Atsobarreko beste behin eskerrik eman nahi dizkiegu eta gonbidapen bat egin nahi diegu begiratzeko gaituzten pertsona guztiei: Begira gaitzabela kontutan izanik ez garelako gaixoak, baizik eta oraindik gauza asko egitear ditugun pertsonak, eta horretan gaude! Zu ere horretan nahi zaitugu! Bizitza bizi ezazu!



Makulu Ken herriko taldeak sekulako giroa jarri zuen Jalgin, euskal afrobeat doinuak eskainiz.



Lauroba talde ezagunak eman zuen Multimusikaleko kontzerturik jendetsuena.

## Multimusikala ez da hil!

*Hastapenetako formatua berreskuratu dute aurten, kontzertuak tabernetan eskainiz; eta asmatu egin dute*

**Aurtengo Multimusikalaren edizioa kolokan egon bada ere, azkenean musika eta kultura adierazpenak presentzia izan du herrian abenduaren erdialdean beste urtebetez. Hamaika kontzertu izan ziren larunbata arratsalde eta gau partean, hamaika anekdota, hamaika bizipen, hamaika izerdi tanta eta aieneren bat edo beste ere bai... Gauza bat geratu zen argi, Multimusikalak bizi-bizirik dirauela.**

Jon ALTUNA EGITEGI

**M**ultimusikala batukada doinuz hasi zen arratsaldeko 18:00ak pasatxo zirela. Aldarrikapenez betetako perkusio kolpeak jo zituen Dinbi Banda batukadak hainbat herritarrez lagunduta. Guztira 50 bat lagun inguru bildu ziren manifestazioan, kultura aske eta herrikoiaeren aldeko deiaeren atzean.

Behin manifestazioa bukatuta, gaueko ordu txikiak arte etenik izango ez zuen festari eman zitzaion hasiera.

Tabernetako kontzertuei ekin baino lehen ordea, Rafaela magoaren ikuskizun umoretsua izan zen Gure Etxean eta Okendo zein Sagardotegi

plazan berriz, graffiteroak aritu ziren paneletan euren talentua erakusten. Gainera, Intxaurrendotik etorritako Parasitos XXL raperoek egungo gizarteari kritika zorrotza egin zioten Okendon bertan, errimaz errima.

### Taberna guztiak sutan

laz kontzertu nagusiak Okendoko karpan egin baziren ere, oraingo honetan herri osoan zehar barreiatu zen festa giroa, taberna desberdinetan zehar.

Kontzertu guztiek izan zuten euren xarma, baina bereziak izan ziren batzuk, Aurka taldearen azken kontzertua esaterako. Ibilbide luzearen ostean, agur esatea erabaki du herriko taldeak,

eta Avenidan bildutako jendetzaren aurrean kontzertu hunkigarria eskaini zuen.

Aipagarria bide batez Mendi Kafe Rock aretoan Jonhny Cash handiaren bertsoak joz aritu zela Low Riders talde eslovakiar-txekiarr-zumaiarra. Nola ahaztu Ilargiko "ukuiluko" kontzertu beroak, Desegin usurbildarrak eta The Garax herritarrek infernu bilakatu zuten Ilargiko sotoa. Edota Okene Abrego eta Mariano Hurtadok (MMA) Siglo 20en hausnarketarako bide ematen zuen kontzertu-errezitaldi ikusgarria, kontra-baxu bakraren laguntzaz.

Kontzertu guzti horiez gain, Trumoi ondoko labadearoan, Abend, Insausti, Jalgi eta Bar de Maun ere izan ziren kontzertuak: pop-a, metal-a, rock'n'roll-a eta DJak gaueko ordu txikieta arte.

Antolatzaileak oso kontent zeuden Multimusikalak eman duenarekin, baina aurrerantzean egingo bada, herritar gazteen beharra izango dutela azpimarratu zuten.



Tabernak jendez gainezka egon ziren larunbatean, irudian Ilargiko "ukuilua", bertan eskaini ziren kontzertu beroenak.

Aurkaren azken kontzertua, Jonhny Cash-en doinuak, manifestazioa, graffitiak...

## LABURRAK.-

## Igeriketa ikastaroak adin guztientzako

Lasarte-Oriako Kirol Zerbitzuak adin desberdinetarako hainbat igeriketa ikastaro eskainiko ditu urtarrietik aurrera.

Urtarrilaren 7tik martxoaren 26a bitartean igeriketan trebatzeko ikastaroak antolatuta ditu, 2008 eta 2009 urteetan bitartean jaiotako haurrentzat.

Bi ikastaro mota izango dira hasiera maila eta jarraienkoa Has-tapenako saioak 18:05ean izango dira eta jarraipenekoak 17:30ean. Astean bi edo hiru egunetan, astelehen eta asteazken edo astearte eta ostegunak eta ostiralak txandaka, izango dira saioak.

Helduek ere igeri egiten ikasi edo gehiago trebatzeko aukera izango dute. Ikastaroa urtarrilaren 7tik otsailaren 20ra izango da astean hiru egunetan, astelehen, asteazken eta ostiraletan 20:30ean.

Ikastaroetan izena emateko epea abenduaren 27an osteguna, astelehena, amaitzen da. Informazio gehiago eskuratzeko Kiroldegiko bulegotik pasa edo 943 376 182 telefono zenbakira deitu beharko da.

## OHARRAK.-

## Ostadarreko loteria

Ostadar Saiarre Kirol Taldearen gabonetako loteria elkartearen bulegoan, Geltoki 25, eta Aldatzekua tabernan salgai dago dagoeneko eta nahi duenak eskura dezake. Kirol taldearen zenbakia 65667 da.

## Ostadar bazkide kanpaina

Ostadar SKT-k bazkide kanpaina berriari jarri du martxan. Honela, kirol egitasmo honen partaide izatera gonbidatzen ditu herritar guztiak eta abenduaren 21 arte bazkide berriek egotzan izena emateko aukera izango dutela jakitera eman du.

## Mendi eta txirrindularitza lizentziak

Ostadar SKT-k jakin arazten du, mendiko edo zikloturista lizentzia urtarrietako berri edo lehenengoz eskuratu nahi duten herritarrek abenduaren 21a baino lehen egin behar dutela.

Lizentzien prezioei buruz jakiteko, Mendiko Gipuzkoako federazioko orrialdean edo Ostadarreko egoitzan eskura daude.

## DUATLOIA.-

## Mendi duatloiko txapelketan lasarteoriatarrak ederki

Euskal Herriko mendi duatloi zirkuitua bukatu berri da, azkeneko proba Murgian ospatu zen abenduaren 2an.

2. edizio honetan 12 izan dira Hego Euskal Herriko lau probintzietan antolatu diren duatloiak Irailan hasi zen zirkuitua Ibarren eta bigarrena Zubietan izan zen.

Itxiki Letamendi herritarrek azaldu digunez, mendi duatloiak bi modalitate uztartzen ditu: korrika eta mendiko bizikleta. Proba bakoitzean korrikako bi saio eta bizikletarena bestea egiten dira.

## Lasarteoriatarrak

Aurtengoan, Letamendik jakitera eman digunez, 13 izan dira parte hartu duten lasarteorarrak.

Sailkapen orokorrean lehenengo herritarra Andoni Illarramendi izan da mutilen mailan eta nesketan azpimarratzekoa da Noemi Montero



Mendi Duatloi txapelketan parte hartu duten herritarretako batzuk.

ITXIKI LETAMENDI

zubiarraren hirugarren postua. Bestalde, proba gehien parte hartu duen herritarra Abel Herrero izan da.

## Hurrengo edizioa

Kirol mota hau bultzatze alde- rako animatu nahi dituzte bai korrika eta mendiko bizikleta gogoko duten herritarrek, "zirkuitu ez oso teknikoak eta distantzia ertainak izaten dira".

## KIROL EKINTZAK.-

## Kirola ezberdinak ezagutu

## Herriko gaztetxoek kirol ekintzak dituzte Gabonetan

**Gabonetan aspertzeko astirik ez da izango. Lasarte-Oriako Kirol zerbitzuak Kirol eta joko ekintzak antolatu baititu 8 eta 11 urte bitarteko gazteentzat.**

Lasarte-Oriako Udal Kirol Zerbitzuak kirol eta joko ekintzak antolatu ditu, 2001, 2002, 2003 eta 2004ean jaiotako neska-mutilentzat. Jarduera honetan parte hartzen duten gaztetxoek, Gabonetan lagun berriak egiteaz gain, kirol eta jolas berriak ere ezagutzeko aukera izango dute.

Saioak urtarrilaren 2an, 3an eta 4ean izango dira, Lasarte-Oriako Udal Kiroldegian goizez, 9:30tik 12:30era.

Kirol zerbitzuak jakitera eman duenez, taldeak gehie- nez 20 partaide izango ditu.

## Ekintzak

Kirol jarduera honetan jolas eta kirol ezberdinak egingo dituzte hala nola, izotzean patinatuko dute eta ur ekintzak ere izango dituzte kirol-



Kirol eta joko ezberdinak ezagutu eta probako dituzte gazteek saio ezberdinetan.

degiko igerilekuan. Honetaz gain irteera bat egingo dute Donostiara. Honetan "Txur-uridin" izotz pistan ederki gozatu eta Anoetako estadio ezagutu ahalko dute gaztetxoek.

Kirol Zerbitzuak jakitera ematen duenez, prezioan sartuta daude hamaiketakoak, garraioa Donostiara eta erab- liko den kirol materiala.

## Izena ematea

Kirol jarduera honetan izena

eman ahal da dagoeneko.

Prezioa 36,80 eurotakoak da kiroldegiko bazkide diren- tentzat.

Izena eman edo informa- zio gehiago eskuratzeko Lasarte-Oriako Udal Kiroldegiko bulegoan egin behar da, astelehenetik ostiralera 10:00etatik 12:30era eta 17:00etatik 19:00etara.

Era berean, plazak harte- ko inskripzio hurrenkera errespetatuko dela jakitera eman du.

## JUDOIA.-



Angelun LOKEko eta Ama Guadalupeko taldeko judokak izan ziren.

GORKA ARISTEGI

## Sagastik brontzea eskuratu zuen Angelun

LOKEko judoek ez zuten Laureko zubian atsedetik izan, Oscar Garrido Totanan izan zen Espainiako kade- teen kopako proban eta Asier Sagasti, Josu Olmos eta Esteban Martinez Angelun izan ziren. Honetan Sagastik brontzea eskuratu zuen.

Gorka Aristegi entrena- tzaileak aipatu digunez, Angelun txapelketa maila altukoa izan zen eta Asier Sagastik "oso txapelketa" ona eginez hirugarren postua eskuratu zuen bere mailan.

## Maila ona eta lesioa

Bestalde, Josu Olmosek eta Esteban Martinezek ez zuten dominarik lortu.

Nahiz eta Josu Olmosek borroka bat irabazi eta bi galduta, Gorka Aristegiren hitze- tan maila oso ona eman zuen.

Esteban Martinezek, berriz, bi lehenengo borrokak irabazi ondoren, lepoan mina hartu eta babesteko erretiratu egin zela adierazi digu entrenatzaileak.

## Totanan zortzerik ez

Bestalde, Totanan, Murtzian, Espainiako Kopa kadeteko proban Oscar Garridok ez zuen egun ona izan.

Lehenengo borrokan kale- ratua izan zen eta bigarren aukeran ere, borroka galduta zuen. Honela 7. postuan amaitu zuen lehiaketa.

— Agenda —

Asteazkena 17, 21:30ean, Jalgi Kafe-antzokian



Begirada bat Palestinara

Aitzol Lasak Biladi Hadi! Brigada kulturalarekin Palestinara egindako bidaia azalduko du. 'Begirada bat Palestinara' izenburu izango duen diaporaman Al Quds, Nablus, Ramallah, Al Qalil eta Beith Laheem-Belen herrialdeetako egoeraz laheem mointzatuko da. Ttaku K.E.-k antolatutako saioa.

egunerokoa azaltzen da dokumentalean. Udaleko Gizarte Zerbitzuek eta AFAGI elkarteak antolatutako ekintza.

Ipuin-kontalaria  
MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Asteazkena 19, 18:00etan

Kontu Kantoiko lagunek hitza eta marrazkiaren bidez ipuinak kontatuko dizkiete 6 eta 8 urte arteko gaztekoiei.

Santo Tomas  
OKENDO PLAZA

Ostirala 21, 17:00etatik aurrera

Ttaku kultur elkarteak antolatuta, Santo Tomas eguneko azoka izango da Lasarte-Orian.



Lasarte-Oria

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA  
Igandea 23, 17:00etan

Haurren zinean, 'Las Aventuras de Tadeo Jones' marrazki bizidunetako filma eskainiko da. Sarrerak leihatilan, 3,40 euro; internetez, 3 euro. Gaztelaniaz.



Musika

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA  
Asteartea 18, 19:00etan

Udal Musika eskolako ikasle eta irakasleek Gabonetako kalejira eskainiko dute.



DONEGAL TABERNA  
Osteguna 20, 22:30etan  
Psicoacoustic taldeak The Beatles-en

doinuak eskainiko ditu, Kultur kale zikloaren barruko saioa.



Bideoforuma

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA  
Asteartea 18, 18:00etan

'Cuidadores' dokumentalaren bideo-foruma egingo da. Alzheimerre duten senideak zaintzen dituzten pertsonen

Erakusketa

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Abenduaren 21era arte, 18:00etatik 21:00etara

Brancussi akademiako ikasle gazteen erakusketa berezia dago. Haien lanen bidez, ikasleek urte hauetan izan duten garapena ikusten da.

JALGI KAFE-ANTZOKIA  
Abenduan zehar

Abar Aranburu zarauztarraren argazki erakusketa ikusgai dago.

— Herritarren txokoa —

Odol ateratzea

Odol ateratzeak egingo dituzte Osasun Zentroan abenduaren 19an, asteazkena, arratsaldeko 17:30etik 21:00etara. Anima zaitzete, odola ordezkaezina da eta odol falta dago!

Erketz EDT-ko OIentzero

Oientzeroren etorrera dela-eta, abenduaren 24an, 14:30etik aurrera, Lasarte-Oriako inguruko baserrietatik kantari atera nahi duenak aurten ere aukera paregabea izango du Erketz EDT-ren eskutik.

Irteera prestatzeko entsegua abenduaren 19an, asteazkena, 20:00etan Zumaburu eskolan duen lokalean izango da.

Zabaletako OIentzero

Urtero legez, Zabaleta auzoko bizilagunak abenduaren 24an, goizeko 10:00etan Oientzerorekin aterako dira auzo eta inguruak haien kantuekin alaitzera.

Horregatik, kantuak prestatzeko entsegua, abenduaren 20a, osteguna arratsaldeko 19:30ean auzoko plazan izango da.

Muntteri AEK-ko mariskada eta Korrika 18ko arropa salgai

Muntteri AEK euskaltegiak abenduaren 21ean, Santo Tomas egunearan, mariskada baten zozketa egingo du Okendo plazan, arratsaldeko 20:00etan.

Zozketan parte hartzeko txartelak dagoeneko eskuragarri daude herriko hainbat tabernatan: Artizar taberna, Jalgi Kafe-Antzokia, Ilargi taberna, Aldatzekua taberna eta Arkupe taberna.

Era berean, Korrika 18ko arropa ere. kamiseta, sudaderak, galtzak, sirak... izango da salgai postuan.

Pausoka elkartearen elkartasun egutegia

Pausoka elkarteak jakin arazten du, elkartasun egutegia egin duela besteak beste Pirritx, Porrotx eta Marimotsotsen laguntzaz eta Muñoz belardendak eta Urruzola mertzerian dagoela salgai, 7 eurotan.

Batxilergoko tituluak

Lasarte-Usurbil Institutuak 2010-2011 ikasturtean Batxilergoko ikasketak amaitu zituzten ikasleei jakin arazten die tituluak eskuragarri ditzutela ikastetxeko idazkaritzan.

— Sarean —

“Zuk esan!” bloga

Buruntzaldeko Udalek 2011 urte bukaeran Buruntzaldea.org eskualdeko euskara eta kirol zerbitzuen web orrialdeari “Zuk Esan!” izeneko bloga atziki zioten.

Blog honen helburua herritarrekin harremanak sendotu eta hauen iritzia ezagutzeko da.

Izan ere, herritarrek aukera dute blogean euskararen erabilerraren inguruan dituzten proposamen, kezka eta arazoak Udal arduradunei jakinarazteko.

Era berean, Buruntzaldeko Udalek euskararen aldetik Udalaren eskaintza eta jokabideari buruz herritarrek duten ikuspegia ezagutu nahi dute.

Horretarako, blog honetan Udaletxeko langileen iritzia jasoa dago. Herritarrekin duten harremanari buruz, ekarpen eta adibideak ikus daitezke blogean eta herritarrek egoera hauei buruzko erantzuna emateko aukera dute. Esate baterako, herritarrei galdera hau egiten diete: “Zuk udalean euskaraz nahi duzunean, adierazten al duzu? Nola? Izan al duzu inoiz eragozpenik?”

Honela, hainbat izan dira haien iritzia eman duten herritarrek eta Euskara Batzordeko ezberdinak erantzunak ere irakurri daitezke blog honetan.

Honetaz gain, Buruntzaldea osatzen duten herrietako Euskara Zerbitzuetako orrialdeetara loturak daude. Era honetara, zerbitzuekin zuzenean harremanetan jartzeko aukera dute herritarrek.



# Olentzero Txintxarri.info-n

*Txintxarri Gabonetako protagonistekin izan da*

*Mari Domingi, Olentzero eta beste lagun batzuekin egon da egun hauetan Txintxarri. Bisita hauetan gure herriko haurrentzat mezuak bidaltzea eskatu diegu. Txintxarri.info-n dituzue lehenengo biak.*

**O**lentzero, Mari Domingi, hiru erregeei eskutitzak idatzi, marrazkiak egin, etxean Egu berrietako apainketa egin, jaiotza jarri, zuhaitza... prestaketetan murgilduta gaude eta aurreratu bezala, TXINTXARRIK bisita berezi batzuk

burutu ditu azken asteetan.

Mari Domingik bere etxean hartu gintuen lanean ari zen bitartean eta berdin aurkitu genuen Olentzero. Kasu honetan bere animaliak jaten ematen ikusi genuen ikazkina, baina goxotasun handiz egin zigun ongi etorria eta mezua

grabatu zuen Lasarte-Oriako lagunei zuzenduta. Lehenengo biak Txintxarri.info bideoteketan eta sare sozialetan dituzue.

## Harrera abenduaren 24an

Abenduaren 24ean Olentzero, Mari Domingi, Xixuko eta Porrotx Loidi Barrengo frontoian elkartuko dira desfileari hasiera emateko 17:00etan. Kalejira egin eta Okendo plazan ekitaldi berezia egingo da. Okendon jasoko dira haurren eskutitzak.



Porrotx, Olentzero eta Xixuko elkartu genituen Lasarte-Oriako umeentzat.

**soluzio argiak**  
TEMPO DE SOLUCIONES

**EUSKAL PRESOK EUSKAL HERRIRA  
GIZA ESKUBIDEAK. IRTENBIDEA. BAKEA**

Abenduak 23 igandea  
**13:00 Okendo plazan**  
**FLASHMOB**



Abenduak 18 asteartea  
**Azken entsegua trinketean**

Urtarrilaren 4 ostirala  
**Poesia errezitaldia**  
**Kultur etxean**

**U12 BILBORA**

**HERRI MOBILIZAZIO OROKORRA**

**ehbildu**  
www.ehbildu.net



**ZEU ZARA**  
**PROTAGONISTA**

**Zornotzako Barnetegia**

Larrea auzoa z/g - 48340 Amorebieta-Etxano (Bizkaia)  
info@zornotzakobarnetegia.com  
www.zornotzakobarnetegia.com  
Tel.: 94 630 83 04